

Donostiako Diputazio Jauregian 1985.eko azaroaren 29an, arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charriton, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, J. Fz. Setien, X. Kintana, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, K. Otegi eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

J. Caro Baroja euskaltzain ohorezkoari Madrilgo Kultur Ministeritzak eratu-tako "Premio Nacional de las Letras Españolas" eman zaionez egun hauetan, Euskaltzaindiaren izenean zorionak ematea erabaki da.

X. Gereño euskaltzain urgazlea jubilatzen delako berria aipatu da, eta gure diru-arazoetan egindako lanagatik eskerrak eman zaizkio.

"Txomin Agirre" sarirako izendatu ziren epaimahikoez aditzera eman dute, aurkeztu diren bi eleberriak sarigarriak ez direla eta, ahobatez, hutsean utzi dutela sariketa.

X. Kintana jaunaren gutun bat jaso da, Erakunde publikoek euskarazko epaimahaiak osatzeko eskariak erdaraz egiten dituztelarik, inor ez bialtzeko eskatuz. Lanpostu arruntetarako denean ez joatea erabakia du Euskaltzaindiak. Euskarari zuzenean dagokionean bakarrik bidaliko da norbait; eta gutunak euskaraz egiteari buruz, Administrazio Lokaleko Sailburu-ordeari gutun baten bidez adieraziko zaio arazoa.

Akademia Galegako idazki bat jaso da, udazken edo negu sarrera honetan egitekoa zen Akademien bilerari buruz egoera agertzen. Urtarrileko bigarren

astera atzeratzea eskatuko zaie. Herrialde guzietako arazoak eguneko gaietan sartzea baino hobe izango litzateke, behar bada, Galizian galegoaren inguruan jardutea eta beste gaiak dagozkien tokietarako uztea. Elkarrizketa hauek interesgarriak direla, esan da, eta joango direnen izenak ematea beste batzarre batean erabakitzeke utzi da.

Bertsolarien elkargoak Euskal Herriko txapelketarako babesba eta diru laguntza eskatu dizkio Euskaltzaindiari. Diruz laguntzeko biderik ez daukagularik, egina genuen Oteizaren trofeoa eskaintzea proposatu du J. San Martin Jagon Sailburuak. Irabazlearen sari izango litzateke eta, nolabait, gure babesaren adierazgarri ere bada. Horrela onartu da.

Maileguen azken testua

Maileguen testu -orrazketaz, 1985.eko otsailaren 22an hartutako erabakiari oharra egin dizkiote P. Altuna eta A. Irigoyen jaunek, Euskaltzaindiaren eskariz. Onartutako erabakia honela gelditu da:

“Hitz mailegatueta *z* edo *s* kontsonanteak (latinezko *z* grekotikako hitzetan agertzen da), *l*, *n* edo *r* kontsonanteen ondoren gertatzen direnean hemendik aurrera nola jokatu behar litzatekeen erabakitzeke Euskaltzaindiak zalantzak izan ditu. Historiari begiratzen baldin badiogu euskalkien jokabidea nabarra eta bitarikoa da izan ere. Hor dugu, esate baterako, XVI. mendean Leizarragaren joera. Honek *n*-ren ondoren beti frikaria idazten zuen; *l*- eta *r*-ren ondoren ere bai, aditz izenen *-tze* atzizkia ez zen guztietan. Geroago, ordea, hor ditugu aski hedatuak eta egun oro erabiliak, *pentsatu*, *bertso*, *zentzu*, *saltsa*; eta ia geure egunotan erabat ezagunak diren *Unibertsitate*, *kontsonante*. Ezin uka daiteke, hala ere, hain erabiliak ez ditugun beste kultura hitz batzuetan, hala nola, “*catarsis*”, “*enzima*” (medikuntza hitza), inork euskaraz erabili nahi dituenen nahi ta ez afrikariakz baliatu beharra gogorxko gertatzen dela. Ez, ordea, jatorriz *ce*, *ci*,... dutenetan; hala nola *inertzia*, *existentzia*, *esentzia*-(filosofiako hitzak azken biak). Guzti hau gogoan izanik honako bidea onartzen du Euskaltzaindiak:

1. *L*-ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea; hala nola *koltza*.
2. *N*-ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea orainarteko ohi-turan era horretara hedatu diren hitzetan; hala nola, *kontsonante*. Halaber *existentzia*, *esentzia*, lehen emandako arrazoiagatik. Baina hain arruntak ez direnetan jatorrizko multzoa bere hartan uztea; hala nola *enzima*.
3. *R*-ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea orainarteko ohi-turan era horretara hedatu diren hitzetan, hala nola *Unibertsitate*. Halaber *inertzia*, lehen emandako arrazoiagatik. Baina hain arruntak ez direnetan jatorrizko multzoa bere hartan uztea; hala nola *katarsi*?”.

Zuzendaritzako gaiak

Azaroaren zazpian Iruñean bildu zen Euskaltzainburugoa, Nafarroako Gobernuak euskararen erabilpenari buruz ateratako aurreproiektua aztertzeke. Nafa-

roako euskaltzain eta urgazle guzietan egin zitzaien deia. Luzaz eztabaidatu ondoren arazoa, erabaki bat zabaldu zen Zuzendaritzaren izenean. Han sortutako hitzerdi batzuei buruz, Zuzendaritzak horrenbesteko eskubiderik baduen, galdetu du idazkariak. Inork ez du ezezko eritzirik agertu. Nola nahi ere, Euskaltzaindiaren itzal onari begira, funtsezko salaketarik balego euskaltzainen batzarrean adieraztea eskatu du, eta ez bestelako gertakizun berezien bilkuretan.

Durangoko "Euskal Jaien" mendeurrena dela eta antolatuko diren ekintzen barnean Ja. Analdi batzu egingo ditu Euskaltzaindiak maiatzaren azken aldera edo ekainaren hasieran. Euskal ebakera hartuko da gai nagusitzat. Horretan arituak diren ikerleek agertuko dituzte beren ondoreak, alde batetik; eta gaurko bertsolari nahiz hizlari jatorren entzunaldiak emango dira, bestetik. Euskalki guziak barne egon beharko dute, noski, eta belaunaldiak ere badu bere garrantzia horrelako lanetan. Ebakera jatorra zein den esatea baino, txarra azpimarratzen hastea hobe izango litzatekeela, esan da. Zer ez den egin behar, alegia.

Ipar Ameriketako "Comité Conjunto Hispano Norteamericano para la Cooperación Cultural y Educativa" deritzan elkarteak eskaintako diru laguntzaz, hiru lagun joango dira datorren abenduan Euskaltzaindiaren izenean Estatu Batuetara. Aspalditik zetorren asmo honen berri eman du E. Knörr jaunak, helburu nagusi hauek aipatuz: Hango euskal gaien artxiboak ezagutzea, euskaldun pertsona eta erakundeekin laguntza lortzeko bideak urratzen hastea, eta bibliotekak nola antolatua dituzten ikustea. Euskaltzainburuok E. Knörr, J. A. Arana eta X. Gereño proposatu ditu.

Batzordeen azalpenak

Gramatika. P. Altuna batzordeburuak, *Bizkaieraren idatzizko Arauak. II Joskera* izeneko lanari buruz Euskaltzaindiak bere egunean eskatutako eritzia agertu du. Bertan ematen diren egitura eta esapiderik gehienak euskara osoarenak dira eta Gramatika batzordearentzat baliagarri gerta daitezke. Hala ere, lana bera gordin samarra, bukatu gabea eta gaizki proportzionatua dela uste du. Gramatika batzordeak eskuartean daraman lana bukatzearekin hobeki ikusiko da hori. Batzorde honek bere atek zabalik dituela bereziki lan hauetan interesa dutenentzat, gogorazi du eritziaren aurkezleak. Horrela jakineraziko zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuari.

Argitalpenak. Rosa Mari Arzak eta X. Gereñok Euskaltzaindiko argitalpenen urteko inbentarioa aurkeztu dute. Etxebarriko gordailu berrira ekarritako ale guzien kopurua 150.619 alekoa da. Salmenta katalogoa egin dela aditzera eman dute eta urtea amaitu orduko, 1985. urteko salmenten balantze osoa ekarriko dutela esanez amaitu dute txostena.

Atlasgintza

Hiru langile berriren hitzarmena dela eta E. Knörr diruzainak P. Salabururenkin prestatutako txostena irakurri du. Lehiaketa publikoaren bidez egingo zela

aukera esanik zegoen aurretik. Txostenean hitzarmenaren egitura eta, batez ere, soldatak aipu dira. Unibertsitateko eta Erakunde publikoetako kategoriekin parekatuz, Euskaltzaindiak dituen soldaten arabera ordaintzea proposatzen dute. Nola nahi ere, Ekonomi batzordeak Euskaltzainburugoaren bidez proposamen zehatz bat egingo omen dio batzarrari. Bitartean, Atlasgintzako batzordeak iraileko bere bilera-agirian dioen prozedura baliorik gabe uztea eskatzen dute. Beste eritzirik ere agertu da, noski, arazo honi buruz.

Bigarren puntu eztabaidatua, aukera egingo duen epaimahaia osotzearena izan da. Bost mahaikide izango direla erabaki ondoren, Euskaltzaindikoak soil-soilik izan behar duten denak ala Unibertsitate nahiz Erakunde publikoen ordezkariak egon behar duen, eztabaidatu da. Zein Unibertsitateko ordezkariak izango lirakeen, publiko ala pribatukoak alegia, aipatu da gero. Tirabirak aparte, pertsona hauekin osotu da mahaiburua: J. Haritschelhar, L. Mitxelena, A. M. Echaide, A. Irigoyen eta Txillardegi. Hauetan hutsunerik gerta baledi, L. Oñederra edo M. Etxenike andereek beteko dute.

Txostenak

J. Garmendia Arruabarrena jaunak "El euskera en el Archivo General de Indias" izenburuarekin prestatutako txostena irakurri du J. L. Lizundiak. Gordailu honen garrantzia eta bertan egiteko legokeen lan zabal eta ikaragarria aipatu ondoren, euskal testu labur eta hitz soil batzuren agerpena egin du. Egunen batez izkribu luzeagoak aurkitzeko itxaropenik ez duela galtzen aditzera emanek amaitu du lana.

F. Krutwig, Literatur Batzordeko buruak, erdaraz irakurri du "Literatur hizkuntza baterako prolegomenoak" izeneko txostena. Euskara ahul eta arlote bat sortzen ari dela salatu du, titulu eta fantesiaz betea bada ere. Autore zaharren eredua aipatu du eta denbora konzeptuak duen garrantzia aditzera eman du. Hizkuntza arrotz askotariko adibideekin, hizkuntzetan badirela maila desberdinetako mintzairak agertu du.

Azken orduko azalpen jakingarria ekarri du E. Knörr jaunak. A. Baratzart euskal idazlearen jaioterria Arabako Durana dela aurkitu dute. 1751ean jaiotzen bataio agiriak dioenez, Ipar aldeko teilagin baten jatorriko seme hau. Kalagurriko Duvanno-n sortu zela esaten zen orain arte. Lapurdiko Larresoron bizitu zen txikitatik, Uztarituzeko erretore izan zen eta Baionako Elizbarrutiko idazkari Iraultza sortu arte. *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea* izeneko liburuaren egilea da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M.^a Satrustegi,
Idazkaria*